



Arartekoaren ebazpena, 2011ko abuztuaren 1ekoa. Horren bidez, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Sailari gomendatzen zaio hainbat agiri onar ditzala benetako egoitzaren baldintza betetzearen egiaztatgiri gisa.

Aurrekariak

1. Kexagileak diru-sarrerak bermatzeko errenta eskatu zuen 2010eko azaroan. Emandako agiriak aztertu ondoren, Arabako Foru Aldundiak ebazpen bat eman zuen prestazioa ukatzeko, izan ere, eskatzaileak ez zuen egiaztatu erroldatuta egotearen baldintza betetzen zuenik eta EAEn gutxienez duela urtebetez geroztik benetako egoitza zuenik.

Ukatzeko ebazpenaren aurka zegokion errekurtsioa jarri ondoren, Arartekora jo zuen kexa bat egiteko asmoz, izan ere, bere ustez, betetzen ditu erroldatuta egotearen eta EAEn duela urtebete baino gehiago bizi izanaren baldintzak. Horren froga gisa, errolda bolanteak eman dizkigu: Abadiñokoa (bertan bizi izan zen 2009ko apirilaren 23tik 2010eko azaroaren 11ra bitartean) eta Gasteizkoa (2010eko azaroaren 11tik aurrera), eta beste hainbat agiri ere bai, benetako egoitza berariaz egiaztatzeko asmoz. Duela urtebete gutxienez benetan EAEn bizi dela egiaztatu du, erroldarekin ez ezik, beste hainbat agirirekin ere, hala nola Abadiñoko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko gizarte-langileak emandako ziurtagiriarekin (han agertzen dira adostutako hitzorduak) edo Bilboko Udalaren ziurtagiriarekin (bertan egiaztatzen da Konekta-ko ikastaroetan parte hartu duela 2009ko ekainaren 15etik).

2. Arabako Foru Aldundiari informazio-eskaera egin genion, diru-sarrerak bermatzeko errenta zergatik ukatu zuen galdetzeko, eta hauxe adierazi zigun, hitzez hitz: *"Para la demostración de la residencia efectiva, el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, entidad competente para la recepción de las solicitudes e instrucción de los expedientes relativos a la renta de garantía de ingresos, incluida la propuesta de la resolución, en aplicación de la Ley 18/2008, de 23 de diciembre, para la Renta de Garantía de Ingresos y para la inclusión Social, en su artículo 88.g; solicita originales y fotocopias de contratos de alquiler del año anterior a la solicitud de la prestación, recibos de pago de dicho alquiler, partes médicos, atención en otros organismos, certificado de cursos realizados reglados, etc., por lo que ante la no presentación de estos documentos, se considera que aunque cumple con el requisito de empadronamiento con la antigüedad requerida, no cumple con el requisito de residencia efectiva que marca la normativa vigente".*





Gogoetak

1. Arau horrek zehazten duenez, diru-sarrera bermatzeko errenta eskatzen dutenek erroldatuta egon behar dute eta EAEn benetako egoitza izan behar dute gutxienez eskaera eskatu baino urtebete lehenago. Gauzak horrela, Gizarteratzeari eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko 18/2008 Legearen 16.b artikulua zera eskatzen du baldintza gisa: *“Prestazioa eskatu den udalerrian erroldatuta egotea eta bertan benetan bizitzea, eta Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan benetan bizitzea eskabidea aurkeztu baino urtebete lehenagotik gutxienez”*. Gauza bera adierazten du Diru-sarrerak bermatzeko Errentari buruzko 147/2010 Dekretuak 9.2. artikuluan: *“Prestazioa eskatzen den udalerrian erroldatuta egotea eta bertan benetan bizitzea eskaera aurkeztu zen unean eta prestazioa jasotzen den denbora guztian, eta eskaera aurkezteko dataren aurreko urte osoan gutxienez Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta egotea eta bertan benetan bizi izatea. Aldez aurreko gutxieneko epe hori bete ezean, eskatzaileak Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta eta bertan benetan bizi izan beharko dute bost urtez jarraian aurreko hamar urteen barruan”*.
2. Lehen begiratuan antzeman daitekeen moduan, agindu horiek ez dute inola ere zehazten eskatzaileek baldintza horiek betetzen dituztela egiaztatzeko erabili behar dituzten bideak. Erroldatzeari dagokionez, argi dago dagokion udalak (kasu honetan Abadiñoakoak eta Gasteizkoak) emandako ziurtagiri bat nahikoa dela. Baina arazoa benetako egoitza egiaztatzen saiatzean sortzen da, izan ere, kexagileari zein erakunde honi bidalitako jakinarazpenetan ez da aipatzen aldundiak zer irizpide erabiltzen dituen benetako egoitza egiaztatzeko onartuko diren bitartekoak zehazteko.
3. Arartekoak behin baino gehiagotan adierazi du errolda egiaztagiriak benetako egoitzaren froga *iuris tantum* gisa jotzen dituela eta, beraz, kontrako froga baten bidez bakarrik ukatu daitekeela. Araudi orokorrean zein jurisprudentzia ugarian oinarritutako iritzia da, hizpide dugun gaiaren inguruan Arabako Foru Aldundiari egindako informazio eskaeran gogorazi genion moduan.

Horren haritik, gure iritziz, interesgarria da gai horri buruzko jurisprudentzia ugariaren zati bat gogoratzea, esate baterako, 1992ko otsailaren 20ko Epaitegi Gorenaren epaia. Izan ere, Gasteizko erroldan izena emateari buruz eta erroldatzea ezinbesteko baldintza gisa barne hartzen duen esleipen baten harira, hauxe adierazi zuen erroldatzearen esanahiaz: *“El único documento con efectos probatorios que consta en los autos, es decir, el certificado del Secretario del Ayuntamiento de Vitoria, declara que la concursante está inscrita en el padrón municipal como transeúnte, por lo que aunque residiera en Vitoria antes de la*

convocatoria del concurso de adjudicación del contrato a que se refiere este proceso, ello indica su voluntad de residir de ahora en adelante en el municipio que convocó el concurso (...) podría mantenerse que el padrón es una prueba a destruir por los hechos en contrario, cuando se demuestra que tales hechos se han producido efectivamente y son ciertos y veraces..."); edota 1985eko azaroaren 11ko epaian: "el efecto probatorio privilegiado, que cabe atribuirles (a los padrones) respecto del dato de la residencia, que es el propio de los documentos públicos -artículos 53 y 3.º Ley Régimen Local y 89 Reglamento Población-, únicamente se produce con plenitud si se presenta aislado, pero no si, como acontece en el caso que se enjuicia, su eficacia es contrastada con otros medios probatorios susceptibles de provocar el convencimiento de la falta de concordancia del contenido del padrón con la realidad".

Beraz, Arabako Foru Aldundiak erabaki du, aipatutako araudia eta jurisprudentiaren aurka, kontrako frogarik ez dagoen arren, bere garaian aurkeztutako errolda egiaztagiria ez duela baliozkotasunik benetako egoitzaren froga gisa.

4. Egia da errolda egiaztagiria benetako egoitzaren froga gisa ez onartu nahi izateak nolabaiteko oinarria izan dezakeela 18/2008 Legearen 16.b. artikularen hitzetan, izan ere, horren arabera: *"Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidearen titular izan ahalko dira, lege honetan errentaren modalitateetako bakoitzerako aurreikusten diren baldintzetan, honako baldintza hauek biltzen dituztenak: "...Prestazioa eskatu den udalerrian erroldatuta egotea eta bertan benetan bizitzea, eta Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan benetan bizitzea eskabidea aurkeztu baino urtebete lehenagotik gutxienez".* Foru erakundearen ustez, beraz, legegileak berak ez du errolda egiaztagiria onartzeko benetako egoitzaren froga gisa. Egiaztagiri hori balioduntzat hartu ez denez, beste froga mota bat eskatzen da egoitza hori bermatzeko. Arabako Foru Aldundiari gai garrantzitsu horren inguruan galdetu ondoren, ez digute eman kexagileari berari ukapenezko ebazpenaren bidez eskainitakoa baino informazio gehiago, hau da: *"originales y fotocopias de contratos de alquiler del año anterior a la solicitud de la prestación, recibos de pago de dicho alquiler, partes médicos, atención en otros organismos, certificado de cursos realizados reglados, etc."* Foru erakundearen ustez, beraz, legegileak berak ez du errolda egiaztagiria onartzen benetako egoitzaren froga gisa. Egiaztagiri hori balioduntzat hartu ez denez, beste froga mota bat eskatzen da egoitza hori egiaztatzeko. Arabako Foru Aldundiari gai garrantzitsu horretaz galdetu ondoren, ez digu eman kexagileari berari ukapen-ebazpenaren bidez eskainitakoa baino informazio gehiago, hau da: *"originales y fotocopias de contratos de alquiler del año anterior a la solicitud de la prestación, recibos de pago de dicho alquiler, partes médicos, atención en otros organismos, certificado de cursos realizados reglados, etc."*. Hortaz, ez da eskatutako informazioa eman, ez baita zehaztu foru aldundiak zein irizpide erabiltzen dituen benetako egoitza egiaztatzeko agiriak balioduntzat jotzeko. Horixe da gomendio hau egiteko arrazoi nagusia, izan ere, onar zitezkeen hainbat agiriren adibideak



aipatu dira, baina ez da azaldu agiri horiek zer ezaugarri izan behar dituzten (esaldia *etab.* hitzarekin amaitzen da) eta ez dira onartu aurkeztutako agiriak (besteak beste, esan dugun moduan, Abadiñoako gizarte-langilearen ziurtagiri bat). Hori ikusita, benetako egoitza frogatzeko baliagarriak diren agiriak zehazteko irizpide jakinik ez dagoela antzeman dugu. Gauzak horrela, zehaztu gabeko baldintza bat ez betetzean oinarrituta ukatu da prestazioa, eta, horregatik, ez da bete Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen 54.1.a. artikuluan xedatutakoa.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

28/2011 GOMENDIOA, abuztuaren 1ekoa, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Sailari egina

Zehazki adieraz dezala zer agiri har daitezkeen benetako egoitza egiaztatzen duten agiritzat, edo, bestela, zer baldintza bete behar dituzten agiri horiek helburu hori lortzen dutela pentsatu ahal izateko.

Beraz, kexagileak emandako agirien artean baldintza horiek betetzen dituen agiririk badago, gainontzeko baldintza guztiak beteta, onar diezaiotela diru-sarrerak bermatzeko errenta, eskaera egin zuen egunetik aurrera.

